

Balioak krisian **Erlatibismoaren eta absolutismoaren ika-mika egia-ostean**

Irati Zubia Landa
Filosofian graduatua

Krisiaren aurkezpena

Azurmendik esan zuen bere ideiak norbaitek irakurri eta pertsona horrenak martxan jartzean datzala pentsamenduaren transmisioak. Azurmendik bere garaian aurkeztutako gogoeta batzuk egungo testuinguru batean gaurkotzeko saiakera da testu hau. Bere neurrian, ur-jauzi horri jarraitzeko ariketa. Zehazki, Azurmendiren *Euskal Herria krisian* (1999) obratik abiatuz, bertako ideia batzuk egia-ostean testuingurura ekarri ditut.

Liburu horretan, krisialdi baten berri ematen du Azurmendik. Krisialdi horretan, balioak arriskuan daude. Egoera larria da, neurri handi batean boteretik manipulatzeko hainbat tresna martxan jartzeko aukera ematen duelako (Azurmendi 1999: 22). Testu honetan defendatuko dut krisialdi hori ez dabilela oso urrun egun bolo-bolo aipatzen den beste krisialdi batetik, hain zuzen ere, egia-osteko arotik. Batak zein besteak hainbat elementu dituzte amankomunean, bereziki, menderakuntzarako arrisku hori. Hala ere, erakutsiko dut badaudela zenbait desberdintasun, eta horiek estrategia-aldaketa baten erakusle direla.

Kontuak kontu, zein da Azurmendik deskribatzen duen krisialdia? Nondik dator? Ibilbide edo prozesu historiko bat dela medio heldu omen gara krisialdi garaira. Arestian, modernitatean, balio handi eta mugiezinetan oinarritzen zen morala eta giza jarduera oro. Alegia, *arrazoimenean* zegoen morala eta gainerako giza esparruak gidatzeko itxaropena, eta horiek modu absolutuan ulertzen ziren. Ordea, modernia-ostetik aurrera, balio absolutu horiekiko konfiantza gutxitzen ari da, besteak beste, multikulturalismoak eta auzi berriek planteaturiko eztabaiden harira. Halaber, krisialdi momentuetan jendearen itxaropen-dosia gutxitzea da ohikoena, eta horrek ere eragina izan du balioak ikuskatzeko moduan. Lehen erlijioak, zuzenbideak edo moralak eskaintzen zuen babesa galdu dugu. «Naturarrik gabe gaude, edo metafisikarrik gabe. Natura edo metafisika porrokatuaren hondakinetan» (*ibid.*: 103).

Horren emaitza hau da: kaosa eta galduta egotearen sentsazioa. Noraezean eta noranzkorik gabe dagoela, umezurtz sentitzen da gizartea. Ondikoz, hau da dagoen pentsamendu orokorra: ez dago heldulekurik dagoeneko, ez dago ez zer sinistu eta ez zerk balio. Egoera horrek, noski, ezinegon sortzen du. Absolutuek zerbait bazekarten,

hori ziurtasuna zen, hots, duda-mudarik eza. Ordea, behin absolutuetan zegoen ustea galduta, noraez-sentsazio horretan murgiltzen gara. Ezinegon horren errua nori egotzi ere badago: erlatibismoari. «Garbi hutsik eta absoluturik ez dago; dena subjektiboa eta 'erlatiboa' da, dena da nolabait zikina. Eta zikin eta zikin artean dauka gizon-emakumeak hautatu beharra» (*ibid.*: 140).

Egoera hori jasangaitz suertatzen da krisi garaietan. Izan ere, krisi garaian inoiz baino gehiago eskatu ohi ditugu erantzun gogor eta zalantza gabekoak (*ibid.*: 176). Neurri handi batean, horrexegatik, bada gizarteko sektore bat balio absolutuetarako buelta duena desio. Nostalgiko horiek balio absolutuak berreskuratu nahi dituzte, erlatibismoaren kontingentziekiko beldurraren aitzakiapean (*ibid.*: 49-53).

Ildo horretatik, iruditzen zait argitu beharreko puntu nagusia zera dela: ea zergatik dakarren, baldin badakar, egoera horrek manipulaziorako arriskua. Hemen defendatuko dut bi direla arrazoi nagusiak; bata absolutuetara bueltatzeko grina horretan datza; bestea, berriz, erlatibismoaren mamuan –hots, «denak balio du, beraz ezerk ez du balio» leloan– eta balioen krisi horretan. Bi horiek aztertu eta, azken buruan, egia-ostean txanpon beraren bi alde direla erakutsiko dut.

Txanponaren alde bat: absolutuekiko nostalgia

Absolutismora bueltatzeko grinari dagokionez, Azurmendik seinalatzen du nostalgia horren atzean joera inposatzaileak ezkuta daitezkeela. Azurmendik kezka begiratzen die absolutismora bueltatzeko joera horiei. Ikuskera horretan, balioen arteko talkak badu soluzio objektibo eta unibertsal bat, bi ikuspuntu ezin baitira aldi berean zuzenak eta egiazkoak izan. Anbivalentzia morala ezabatzen dute, erantzun zuzena bakarria baita eta, noski, haiena. Hiru printzipio barnebiltzen ditu joera absolutistak.

Lehena; zer egin edo nola bizitza arautu esaten diguten balioekiko arazoen, bazutela guztiek soluzio objektibo bat; eta soluzio hori, soluzio egiazkoa bazen, gizon-emakume guztientzat bera zela. Bi: soluzioa, izan zitekeela eskuratzen zaila, denek ulertzeko sutilegia, etab., baina gizakiaren esku zegoela beti ere – nahiz berak lotuta, nahiz errebelazioak irakatsita. Soluzioa hor dago, eta borondate oneko gizon-emakumeek ez daukate hartzea besterik. [...] Hiru: egiazko balioek eta egiazko soluzioek ezin dute elkar jo, edo elkar ukatu; beraz, balio ezberdinek sistema harmoniko bat osatzen dute. Ikusten badugu balioek elkar ukatzen dutela, edo kultura bateko balio-sistemak beste batekoa ukatzen duela, bietan batek okerra izan behar du. Bat bakarria da zuzena. (*Ibid.*: 50)

Hori horrela, hala pentsatzen duenari tentagarri suerta dakioke bere mundu ikuskera inposatzeko saiakera; Azurmendiren aburuz, horixe da absolutistaren arriskua. Hasteko, pentsaera horrek baduelako dagoeneko kultura zapaltzaile baten kutsua, ideologia zapaltzaile baten oinorde den heinean. Halaber, absolutismoak eztabaida nola ukatzen duen ikusita gelditzen da agerian hori. Izan ere, «on absolutuak edo gaizto absolutuak zer eztabaidatu gutxi uzten du» (*ibid.*: 54). Absolutismoak balioen ikuskera bakarrari men egiten badio, neurri berean egin behar dio men arrazoimena ulertzeko modu bakar bati. Hortik kanpokoa ez dago besterik gabe 'oker', arrazoitzeko posibilitatea bera ukatzen zaio. Izan ere, arrazoituko balu kultura hegemonikoko balioekin egingo luke bat, horiexek absolutuak baitira. Bide horretatik, berearekin bat

egiten ez duen arrazoimen oro eztabaidatik kanpora dezake (*ibid.*: 81). Horren atzean, zapalkuntza ugari ezkututzen dira. Esate baterako, azpimarragarriak dira oso Miranda Frickerrek (2017 [2007]) seinalaturiko injustizia epistemikoak.¹

Horren aurrean, Azurmendik erlatibismoaren alde egiten du (Azurmendi 1999: 43). Hala ere, kontuz ibili behar da erlatibismoa nola ulertzen dugun. Termino ilun bezain konplikatu da, eta erraz desitxura daiteke. Horrek txanponaren bigarren aurpegira narama.

Txanponaren bigarren alde: erlatibismoaren mamua

Erlatibismoaren alde, baina, ondo ulertu behar da «balioak erlatiboak dira» esaten denean zer esan nahi den. Azurmendi kontziente da ‘erlatibo’ hitza hitz konplikatu dela, eta argi utzi nahi du bere erabilera. Balioak erlatiboak direla esatean, Azurmendik ez du defendatzen balio denek berdin balio dutenik, eta, ezta ere, noski, absurdoa dela balioen gaineko ezein eztabaida oro (*ibid.*: 18). Ondikoz, erlatiboak ere ez du esan nahi bakoitzaren apetakoa edo erabateko subjektiboa, norbere apeten arabera denik balioen gaineko eztabaida (*ibid.*: 63). Aitzitik, adierazi nahi duena da balioak ez direla absolutuki funtsatuak.

Baina, kasu!, askotan geure hizkuntzak engainatzen gaitu: erlatibotasunak ez du balio eskasa edo inportantzia gutxi esan nahi; esan nahi du, guk ezagutzen dugun oro, kondizio batzuekin eta harreman edo erlazio sistema batean ezagutzen dugula, h.d., ezagun dugun zernahi hori, ikusgune baten arabera, beste batzuekiko erreferentzia sisteman, geuk aurrezarrirako interes (teoriko edo praktikoa) batzuen markoan, momentu historiko eta ingurune kultural baten baldintzen arabera, perspektibaren antzera, etab., ezagutzen dugula; ez absolutuki, alegia. Erlatiboa ez zaio ‘balio handikoari’ kontrajartzen, absolutuari kontrajartzen zaio, bere baitako eta baldintza gabekoari. (*Ibid.*: 40)

Oso tentuzkoa den ariketa batean, erlatiboa bera erlatibizatu nahi du Azurmendik. Erlatibismoa ez da absolutuki ulertu behar, horrek ere hainbat arrisku baititu. Nagusia, nire iritziz, balioen baliogabetzea da. Eta hortxe dago, nire ustez, egun balioak krisian daudela esateko gako garrantzitsuenetakoa bat. Pixka bat xehatuko dut bai espere hori.

Hasteko, Azurmendik, balioak erlatibizatuz, dogmak baliogabetzen ditu, eta horri ariketa bikaina deritzot. Erakusten du dogmen bideak ez duela balio balioen gaineko eztabaida gidatzeko. Kontua da, erlatibismo hori ondo ulertu ez eta desitxuratuz, dogmak beharrean balioak berak baliogabetu daitezkeela. Baliogabetze horrek pistak ematen ditu egia-ostea ulertzeko. Egia-ostean tranpa bat egiten da: dogmen erlatibismoaren izenean, balioak erlatibizatu nahi dira. Ez erlatibizatu, baita baliogabetu ere. Azurmendik aipatzen dituen *kazetako sofista postmodernok* hori egiten dute.

Hala ere, sofistekiko susmotzar sakon bat barru-barruan geratu zait beti ere neuri; eta ez prezeski Greziako sofista bikain mutiri haienganako, kazetako haien kopia komertzial hauekiko baino, oraingo sofista postmoderno hauenganako. Alegia, balio oro erlatiboa da, balio oro berdina da bezala ulertzen dutenak. [...] Sofista grekoek balio ororen erlatibotasunetik, diskurtsoaren eta erretorikaren garrantzia ondorioztatu zuten. [...] Sofistentzat erabakigarria ez zen nork duen balio

edo egia hobeia –ez baitago bat bestea baino hoberik ‘berez’–, baizik zeinek duen diskurtso hobeia, besteak leialki konbentzitzeko. (*Ibid.*: 19)

Sofistekiko duen susmo txar horrek hainbat gako argitzen ditu egia-ostean eta balioen krisialdian gertatzen dena argitzeko. Balioekiko konfiantza gutxitu izanak ez du agortzen balioen gaineko eztabaida. Are, zenbait balioen izenean epaiak egiten eta erabakiak hartzen jarraitzen dugu. Kontua da ea zein irizpideren arabera hartzen diren erabaki horiek. Nahiz eta konplexua izan oso balioen funtsatzearen gaineko eztabaida, eta ez egon garbi zein diren irizpide etiko zuzenak, balioen krisian ariketa tranpati bat egiten da. Ariketa hori iraulketa-ariketa bat da, eta hori da Azurmendik sofista horiei begira seinalatzen duena. Zertan datza iraulketak? Eztabaidatik kanpoko irizpideak hartzean. Kasu horretan, hots, sofisten kasuan, baliabide erretoriko onenak dira zerk balio duen eta zerk ez duen balio zehazten dutenak.

Halaber, iraulketa-ariketa hori bide askotatik egin daiteke. Adibide horretan gaitasun erretorikoak aipatzen dira, baina bada beste bide asko. Adibidez, berriro ere Fricker (2017 [2007]: 40, 154) gogora ekarriz, generoa, klasea eta arraza izan daitezke irizpide erabakigarriak zerk balio duen eta nork duen arrazoia zehazteko. Horrez gain, batez ere egia-ostean, aski da bozgorailu indartsu bat eskuratzea arrazoia erdiesteko.

Arrazoi denak eztabaidagarriak dira (erlatiboak, beraz); garrantzizkoa diskurtsoa da, alegia, garrantzizkoa *de facto* prentsa eta ikus-entzunezko hedabideak eta propaganda zeinek dominatu, gehiengoa irabazteko. (Azurmendi 1999: 19)

Beste aukera bat, egia-ostean ohikoa oso, gehiengoaren iritzia alde izatea da. Azurmendik ere seinalatu zuen hori.

Demokrazia modernoak, zientzia modernoak bezala, kriterio matematikoekin ebatzi nahi izaten ditu, lege naturalenak adina, lege sozialen auziak. Balio eta arrazoen arteko konfliktuan erabakitzeke, balio eta arrazoen artean kanporako instantzia bat hartzen da, matematika eta –moralki– neutrala itxuraz: gehiengoa. Eta gehiengoaren printzipioa–nork ukatu!– oso inportantea da: eraketa sozialaren alorrean hain zuzen [...]. Aldiz, gehiengoak ez arrazoirik eman eta ez kendu egin liezaioke inori; ez egirik oinarritu, ez baliorik legitimatu eta ez deslegitimatatu. (*Ibid.*: 20)

Nahiz eta hurrengo atalean sakonduko dudan egia-ostearen mamian, hainbat autoreren iritziz, azken hori da zerk balio duen eta zer den egiazkoa erabakitzeke jokoan pisu gehien duen faktorea (McIntyre 2018: 38). Zerrenda luzatu egiten da egia-ostearen testuinguruan; aipatu elementuei batzen zaizkie, esaterako: emozioak, sentimenduak, karisma...

Behin erlatibismoaren mamua gizartean iltzatuta, errekurtsu horien gudan datza zerk balio duen eta zer den egiazko. Erlatibismoaren mamua erlatibismoaren sinplifikazio bat bada ere, eta horrekin ez bada agortzen ere erlatibismoaren gainean esan daitezkeen guztia (Olariaga 2019), gero eta iltzatuagorik dago egungo gizartean.

Kontuak kontu, honela labur daiteke gertatzen den ariketa: behin balioak baliogabetuta, kanpo irizpide batzuen arabera gidatzen dira balioen gaineko eztabaidak, epai etikoak eta hartzen diren erabakiak. Izan ere, balioak krisian egonagatik, ez dira gure hiztegitik eta gure bizitza publikotik kanporatu. Balioen krisialdian, ez dira balioak

atzean utzi; aitzitik, baliogabetu egin dira. Alabaina, kanpo irizpide horien atzean botere-harremanak ezkuta daitezke. Bide horretatik, absolutisten kasuan gertatzen zen bezalaxe, erlatibismoaren mamuaren haritik tiraka, mundu ikuskera jakin batzuk inposatzeko eta beste batzuk baliogabetzeko, saiakera egon daiteke. Ondikoz, esan daiteke bata zein bestea direla txanpon beraren bi alde. Txanpon hori, egoera okerreanean, menderakuntzaren txanpona da.

Balioez hitz egin dut, orokorrean; baina egia-ostean balioen krisialdian balio bat baldin badago jomugan, hori egiarena da. Balioen iraulketak bezalaxe, egiaren iraulketak ere baditu bere arriskuak; jarraian aurkeztuko dut zergatik.

Egia-osteko krisialdia

Egiaren iraulketa

Behin honaino heldurik, bada garaia egia-ostea zer den argitzeko. ‘Egia-ostea’ erabiltzen da aro bat, garai bat, egoera bat izendatzeko. Aitzitik, ‘oste’ horrekin ez dugu pentsatu behar egia-ostean egia atzean utzi dugun garai bat denik. Egia-ostean egiak badu lekurik, baina modu berezi batean harremantzen gara harekin. Harreman horren muinean, egiaren iraulketa dago.

Nahiz eta egia-osteaz hitz egiteko gezurra, iruzurra, engainua, berri faltsuak eta gisako elementuak aipatzen diren, horrek ez du esan nahi egia-ostea egiarik gabeko garai batekin lotzen denik. Ez dut ukatzen elementu horiek eta, orobat, gezurraren figura, egia-ostekoaren ezaugarri direnik. Alabaina, gezurraren presentzia ez da egiaren ez-existentziaren frogatzat hartu behar.

Batetik, gezur bat esateak ez duelako egia alboratzea esan nahi, egia ezkutatzea baizik. Frankfurtek (2006 [2005]) egiazalea eta gezurtia partida berean jokatzen ari direla iradokitzen zuen, eta egiaren kontzeptua eta balio epistemikoak dira partida horretako joko-erregelak markatzen dituztenak. Biek, bai gezurtiak eta baita egiazaleak, ezagutu eta onartu behar dituzte joko-erregela horiek. Gezurtiak arau batzuk hausten ditu, baina, gezur fin bat eraiki nahi badu, ezinbestekoa du aurretik egiazalearen jokoan jokatzea, ondoren iruzurra eraikitzeke (*ibid.*: 74). Egia ezagutzen du, ondoren ezkutatatu ahal izateko. Zentzu horretan, ezkutatzeak ez du esan nahi egia alboratzea. Egia ezkutatzea, desitxuratzea, harekin jolastea ez da egiaren ez-existentziaren froga bat (Haack 2019: 268, Arrieta 2019: 112). Are, gezur klasikoaren kasuan, gezurtiaren presentziak berresten du egiaren zentzua. Beraz, egia-ostea gezur, faltsukeria eta iruzurrez beteta badago ere, ez da egia atzean utzi den garai bat.

Aldiz, egia-osteak egiarekin harremantzeko modu jakin bati egiten dio erreferentzia. Beste zerbait gertatzen da hor. Egia-ostean ez du axola hainbeste zerbait egiazkoa den edo ez; zerbait egiazkoa dela pentsatzea ez da arrazoi bat horren alde egiteko, egia ez baita garrantzitsua. Egia-osteko garaiaren ezaugarri nagusia da egia ez dela aintzat hartzen, egia bigarren (edo hirugarren eta laugarren) lerroan jartzen dela.

Horri lotuta, Frankfurtek detektatu zuen jada fenomeno bitxi bat: egiarekiko ezaxolakeria. Egiarekiko ezaxolakeria hori hitzontziaren figuraren ezaugarri nagusia da

(Frankfurt 2006 [2005]: 68). Hitzontziaren figuraren definizioaren gainean eztabaida ugari badago ere (Meibauer 2016: 68), hori da hitzontziaren ezaugarri nagusietako bat. Gezurtia gutxienez egiarekiko axolati agertzen da, egia zein den aintzat hartzen duelako faltsua dena baieztatzearen itxurak egiteko. «Gezurtiak egia aintzat hartzen du [...] Ezaxolatiak –hitzontziak– jokatzen du egia ez balego bezala» (Arrieta 2019: 121). Hori horrela, egia-ostean egiarekiko mespretxua da nagusi. Hala ere, egiaren izenean mintzatzeko jarraitzen dugu, balioen gainean mintzatzeko jarraitzen dugun bezalaxe. Egiarekiko joera ezaxolati hori manipulaziorako tresna eraginkorra izan daiteke. Nire susmoa da estrategia hori egia-osteko arrisku nagusietako bat dela. Ikus dezagun nola jar daitekeen martxan.

Egia (eta balioak) baliogabetzeko estrategia

Egiaren garrantzia murrizteko bide ugari daude. Gezurtiak egiak garrantzirik ez duen plantak egiten ditu, nahiz eta erakutsi dudana berez badela garrantzitsua harentzat, ondoren ezkutatu ahal izateko. Balioekin ere gauza antzekoa egin daiteke, adibidez, balio jakin batzuk isilaraziz, benetan balio ez dutela aldarrikatuz. Joera absolutistak hori egiten du, berea inposatzeko. Frankfurten hitzontziaren kasua, ordea, desberdina da. Gezurtiaren aldean, baditu hainbat abantaila hitzontziak, orokorrean toleranteagoak izan ohi gara harekin (Frankfurt 2006 [2005]: 62).²

Alabaina, badirudi badagoela engainuaren elementuren bat hitzontziaren kasuan (Meibauer 2016: 79). Hori eztabaidagarria da oso, besteak beste, oraindik pragmatikan ez dagoelako hitzontziaren gaineko definizio bateraturik, eta are gutxiago teoriarik. Hala ere, onartuko dut hitzontziak engaina gaitzakeela, eta egiarekiko axolagabeki jokatzeak, egiarekiko dogmatikoki jokatzeak bezala, ekar ditzakeela manipulaziorako arriskuak. Gezurtia bezain arriskutsua da hitzontzia, nahiz eta ez dirudien hasiera batean horren oldarkorra. Hori hala bada, egia-ostean manipulaziorako estrategia berri batekin egingo genuke topo. Egiari kasu gutxi egitea engainurako gakoa izan daiteke kasu horretan.

Intuzio horrek egin zion zion ziztada dagoeneko urte batzuk atzera Hannah Arendti. *Gezurra eta politika* (1967) eta *Gezurra politikaren baitan* (1972) lanetan, egiaren eta boterearen arteko harremanaren inguruko gogoeta interesgarri batzuk aurkeztu zituen.

Testu biotan, Arendtek politikaren eta egiaren arteko harremana tentsiozko harremana dela dio. Politikak ez du egia estimatzen eta batzuetan egia esatea jarrera antipolitiko baten modukoa da (Arendt 2017a [1967]: 37). Politikaren eta egiaren arteko gatazka edo, bestela esanda, politikaren eta gezurraren arteko harreman estua, Arendten aburuz, jarduera politikoak beharrezkoa duen zerbait da. Politikariari (batez ere bere boterea inposatu nahi duenean) bere aldeko errealitate bat hobetsiko duen gizarte bat komeni zaio. Helburu horri begira, egiak beti jarriko dio oztoporen bat. Izan ere, egiaren izaeraren baitan bada zerbait tiranorik gogorrenak ere gudukatu ezin duena.

Nahiz eta egia beti suertatu inpotente eta galtzaille botere hegemonikoekin guduan sartzean, badu indar berezi bat. Boterean daudenek egiten dutena egiten dutelarik ere, inoiz ez dira gai izango egiaren ordezkari parekide bideragarri bat asmatzeko, deskubritzeko. Biolentziak eta pertsuasioak egia suntsi dezakete, baina inoiz ezingo dute ordezkatu. (*Ibid.*: 72)³

Egiarekiko duen etsaigo horren harira, ohikoa izan da historian zehar gezurra politikari iaio baten abilezia preziatutzat jotzea. Arendten gogoetetan, ordea, politikako gezur modernoek, gezur klasikoekin alderatuz gero, joera ezberdin eta berria erakusten dute. Nik neuk ere aipatu dut sarreran egia-ostea ez dela zehazki gezurrarekin lotzen, egia-osteak badakarrela berarekin zer bait berria. Berritasun hori egia erasotzeko bide berri batetik dator, eta zuzenean hori ukatu edo ezkutatzetik baino, *egia* kontzeptua bera manipulatzearekin lotzen da.

Arendtek dioenez, manipulazio modu berri hori egiak iritzien erresumara ekartzeari zor zaio (*ibid.*: 33). Egiaren eta iritzien erresuma ezberdinak dira, baina Arendtek dio bien arteko muga gero eta lausoagoa dela eta hori arazo bat dela. Bi erreinu horien artean, iritzienak askoz askatasun gehiago eskaintzen du. Halaber, askatasun hori abantaila bat da egitateak bere alde izan nahi dituenarentzat. Iruzurtiak, bere gezurra inposatzeko botererik ez duenean, askoz errazago egiten du aurrera bere judizioa egia gisa baino iritzi moduan salduz gero; are, aukera balu, hori egiteko eskubidea duela jar lezake aitzakia gisa (*ibid.*: 55). Izan ere, iritzien erresuman egiaren izaera despotikotik ihes egin dezake, eta errealitatea bere nahierara eraldatzeko bidea errazten zaio. Hori badago nolabaiteko analogian Frankfurten hitzontziaren kasuarekin.

Horrela, askatasun hori mugatu ezean, manipulazioari ateak irekitzen zaizkio. Politikan ikusten diren iruzur modernoak, zoritxarrez, bide horretatik doaz. Behin egiaren eta usteen arteko muga ezabatuta, iruzurtiak bere nahierakoak diren eta publikoak erraz onartuko dituen narrazioak asma ditzake (*ibid.*: 58), iritzien erreinuan egitateak eta egiak duten izaera normatiboa ere lausotu egiten da eta. Beste hitz batzuekin: egiak, balio epistemikoek eta egitateak duten balioa baliogabetzen da. Nola egiten da hori egia-ostean? Faktore asko korapilatzen dira, baina, finean, egiari egiten zaion mespretxu horretatik. Egia (eta uste dut baita gainerako balioak) krisian egotea kezkarria da, beraz.

Finean, Arendtek erakusten digu egiaren eta politikaren arteko gudu klasikoak maila bat gora egin duela. Estrategia aldatu da: dagoeneko ez dira gezur puntualak esaten, eta iruzurra ez datza egitateak ezkutatzeko trikimailu sekretuetan (*ibid.*: 62). Estrategia modernoa egiaren eta usteen arteko marra lausotzean datza, eta muga hori ezabatzeak engainuaren aurrean gero eta zaugarriago bilakatzen gaitu (Arendt 1974 [1951]: 474). Gainera, dagoeneko aipatu dudan moduan, gezur politiko modernoek sekulako dimentsioak hartzen dituzte eta manipulazio masibo baterako tresneria ikaragarria egon daiteke martxan (Arendt 2017a [1967]: 62), besteak beste: instituzio politikoak, administrazioa, komunikabideak edo historiaren manipulazioa eta, egungo gizartean, Interneteko mundua eta sare sozialak. Testu honetan horretan sartzeko tarterik ez badut ere, egia-ostearen inguruan egiten diren ikerketetan faktore horien garrantzia gero eta agerikoagoa da. Halako makinariaren aurrean, uste dut badugula zertaz arduratu.

Hori horrela, ikus daiteke estrategia berrian ez dela zertan absolutismoa izan botereak berea inposatzeko duen diskurtso-errekurtso bakarra. Hain zuzen ere, estrategia berri horretarako, badirudi erlatibismoaren mamua esplotatzea dela bide eraginkorrena. Iritzien eta egiaren arteko muga konplikatu izan daiteke zedarritzen,

baina, ezabatzen denean, aurreko atalean azaldu dudan egiaren iraulketa gerta daiteke. Eta iraulketatik baliogabetzera goaz.

Ondorioak

Testu honetan balioak (egia, nahiz balio etikoak) baliogabetzearen ondorio posibleak jarri nahi izan ditut mahai gainean. Ondorio nagusia manipulazio eta menderakuntzarako arriskua da. Ordea, hori egiteko estrategia norabide bikoitzekoa dela ikus daiteke.

Batetik, absolutistaren mehatxua dugu, zeinak, Azurmendik erakutsi bezala, badituen erremintak bere mundu ikuskera inposatzeko. Horren aldean, egia-ostean, balioekiko mespretxuak, joera ez-axolatiak dira menderakuntza ekar dezaketen faktore arriskutsuak. Bigarren horretan, erlatibismoaren mamua gizartean gero eta iltzatuago egotea faktore garrantzitsuenetako bat da.

‘Egia-ostea’ deitzen zaion sare eta anabasa horretan, hainbat faktore korapilatuz, bi estrategiok daude elkarbizitzen. Egun, badira erlatibismoaren mamuaren aitzakiapen joera absolutistetara bueltatzeko aldarria egiten dutenak (Olariaga 2019: 11-12). Alabaina, erlatibismoaren mamu horretaz aprobetxatzen denik ere badago, eta ez dira ez gutxi, ez edonor. Horrek ez du esan nahi horiexek erlatibista deklaratuak direnik. Hitzontziaren kasuan bezalaxe, axolagabeak dira, ez dirudi euren kezken lehen lerroan dagoenik balioen funtsatzearen gaineko eztabaida. Alabaina, tranpatiak, aprobetxatuak dira. D’Anconak dioen moduan: «Trump da ziurrenik ezagutzen ez duen, eta ezagutuko balu gaitzetsiko lukeen pentsamolde baten onuradun sinesgaitza»⁴ (D’Ancona 2019 [2017]: 119).

Giro nahasi horretan daude oraindik ere balioak krisian. Gainera, estrategia aldatu bada ere, ez zait iruditzen irabazle eta galtzaileek paperak trukatu dituztenik. Izan ere, balioekiko ustea eta egiaren inguruan tentuz hitz egiteko aukera alboratzen denean, galera ez da txantxetako. Batetik, esan bezala, iraulketa ariketa gertatzen denean, erabaki-irizpideek askotan botere-harremanekin dutelako lotura. Bestetik, orokorrean balioek eta, noski, baita egiak ere, sekulako ahalmen salatzailea dutelako. Boterea duenak, erakutsi bezala, bide askotatik eskura dezake sinesgarritasuna. Aitzitik, gutxiengo zapalduen interesak eta baita boterearen gehiegikeriak ere, salatzeke, behar-beharrezkoa da egiari eta balioei balioa aitortzea (Haack 2019: 260). Galera hermeneutiko handia litzateke termino horien hutsaltasunean erortzea.⁵

Hala ere, kezka horiek aurkeztuta, aurretik egiteke dagoen lana hasi besterik ez da egiten. Hasteko, kezka horrek, hots, balioak krisian daudela ikuskatzeak, alertan jartzeaz gain, horra heltzeko faktoreak gertutik aztertzeraz eraman beharko gintuzke. Aitortzen dut nik testu honetatik kanpo utzi dudala egiteko hori. Alabaina, uste dut norabide ona izan daitekeela ikertzea ea zer dela eta garen hain zaurgarri egia alboratzeko. Zergatik den hain tentagarri eta ohikoa indiferentziaren eta axolagabearen jarrera. Bide horretan, abiapuntu gisa nik isuri kognitiboak hartu nituen nire Gradu Amaierako Lanean (Zubia 2019). Isuri kognitiboek erakusten dute, besteak beste, ez zaigula eroso eta erraz egiten

beti egiarekin harremantzea. Egia-osteari begiratu bat eman ahala, gero eta mekanismo gehiago identifikatzen dira isuri horiek areagotzeko.

Horrez gain, uste dut balioen krisialdiaren auziak balioen, egiaren eta horien funtsatzearen gaineko gogoeta bideak berriro zabaltzen dituela. Krisian dauden kontzeptu horien gaineko gogoeta filosofiari dagokion lana dela uste dut. Zerk eragin du erlatibismoaren mamuak halako arrakasta izatea? Ez al dago horren eta absolutismoaren arteko alternatibarik balioen gaineko gogoeta egiteko? Eta egiaren inguruan? Egiaren ikuskera absolutuaren eta egirik gabeko munduaren artean erabaki behar al da derrigor? Egiaren mespretxuak al dakar gainerako balioen mespretxua? Nola da posible engainua egitari kasurik egin gabe? Gogoeta-bide berrien zerrendak luze jarrai dezake. Ur-jauzia bizirik dagoen seinale.

Oharrak

1. *Injustizia epistemiko* kontzeptua Miranda Frickerrek (2017 [2007]) plazaratu zuen, erakusteko badirela zapalkuntza forma batzuk zuzenean subjektu zapalduari ezagutzen duen subjektuaren estatusa ukatzen diotenak.
2. Puntu honetan argitu behar da nondik datorren erreakzio malguago hori. Hitzontziaren diskurtsoaren lehen lerroan ez dago egia esatea, ezta ezkutatzea ere. Bestela esanda: hitzontziari bost axola esaten duenaren egia-balioa. Hori dela-eta, bere diskurtsoa faltsatzea ez da bide eraginkorra bere jarrera salatzeke. Gainera, askotan hari zer leporatu jakin gabe gelditu ohi gara, ez baitago garbi zein den egin duen engainua (Frankfurt 2006 [2005]: 62).
3. Jatorrizko pasarte gaztelaniaz dago. Itzulpena artikuluaen autorearena da.
4. Jatorrizko pasarte gaztelaniaz dago. Itzulpena artikuluaen autorearena da.
5. Iruditzen zait egon daitekeela lotura interesgarri bat puntu horren eta Frickerrek planteaturiko *injustizia hermeneutiko* (Fricker 2017 [2007]: 255) kontzeptuaren artean. Frickerrek injustizia epistemikoen barnean bi injustizia-mota bereizi zituen: testigantza-injustizia eta injustizia hermeneutikoa. Lehena gutxienez bi subjektuaren artean gertatzen da. Entzuleak hizlariaren sinesgarritasuna murrizten du irizpide eta aurreiritzi identitarioak direla medio (*ibid.*: 17). Bigarrenak, aldiz, ez du testigantza-trukaketa baten beharrik. Injustizia hermeneutikoak subjektu edo talde jakin baten egoerak interpretatzeko baliabide hermeneutiko falta dagoenean gertatzen dira (*ibid.*: 254). Kontzeptu, termino edo balio hermeneutiko jakin batzuen falta dela medio, gizarteko hainbat sektoreren egoerak ulergaitz suertatzen dira. Egia kontzeptuaren gutxiespenak eta, noski, baliogabetzeak galera hermeneutiko larria ekar dezakeela iradoki dut. Atea zabalik uzten dut hori aurrerago jorratzeko.

Bibliografia

- Arendt, Hannah (1974 [1951]): *Los orígenes del totalitarismo*, Madril, Taurus.
- (2017a [1967]): ‘Verdad y política’, in Hannah Arendt: *Verdad y mentira en la política*, Bartzelona, Página Indómita, 11-80.
- (2017b [1972]): ‘La mentira en política’, in Hannah Arendt: *Verdad y mentira en la política*, Bartzelona, Página Indómita, 81-142.
- Arrieta, Agustin (2019): *Gogoeta-bide irekiak*, Bilbo, EHU.
- Azurmendi, Joxe (1999): *Euskal Herria krisian*, Donostia, Elkarlanean.
- D’Ancona, Mathew (2019 [2017]): *Posverdad, la nueva guerra contra la verdad y cómo combatirla*, Madril, Alianza.

- Frankfurt, Harry J. (2006 [2005]): *On Bullshit. Sobre la manipulación de la verdad*, Barcelona, Paidós.
- Fricker, Miranda (2017 [2007]): *Injusticia epistémica. El poder y la ética del conocimiento*, Barcelona, Herder.
- Haack, Susan (2019): 'Post «Post-Truth»: Are We Yet?', *Theoria* 85, 258-275.
- McIntyre, Lee (2015): *Respecting Truth. Willful Ignorance in the Internet Age*, New York, Routledge.
- (2018): *Posverdad*, Madrid, Cátedra.
- Meibauer, Jörg (2016): 'Aspects of a Theory of Bullshit', *New Theoretical Insights into Untruthfulness* 23/1, 68-91.
- Olariaga, Andoni (2019): *Erlatibismoaren egiak. Konstruktibismoa, egia-ostea, postmodernismoa eta beste mamu batzuk*, Bilbo, UEU.
- Zubia, Irati (2019): *Egia-ostea eta honen arriskuak*. Filosofiko Gradu Amaierako Lana. UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.

JAKIN

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus